

180en gutuna txalogarria da. Eta RTVEko giro ustel eta kirastuan haize garbi pittin bat sartzen utziko duen leiho txiki bat ireki dutela uste dut. Ez al du inork leiho hori ixten asmatuko... ■ *Manolo Pagola.*

Ongi etorri, Tribuna Vasca

Tribuna Vasca jaio da. Zorionez. Zorionak.

Ongietorririk ematea «ofizialki» eskatu ez bazait ere, beste batzuekin batera kalera atera nahi nuke nere ongietorririk abegitsuena emateko.

Biziki poztu nau *Tribuna Vasca*-ren jaiotzak. Eta pozteko arrazoi ugari ditugu.

Ez al da ba poztekoa Euskal Herriko kazetaritzaren lur idor eta elkor honetan kazeta berri baten jaiotza? Haur berri bat sortu zaigu. Itsusia da? Polita da? Bost axola! Gainera, geroak esango du polita ala itsusia den!

Pozten gara, bai, gizarte pluralista baten aldeko garelako. Eta indar sozial jakin baten arazoketa asumi dezakeelako TVK.

Edozein egunkariren jaiotzak pozten bagaitu, are gehiago egunkari hori «independiente, liberal y progresista» denean.

Halere, ohar pare bat pozaren bestaldean.

Bat. Egunkari berri bat sortu da bai, baina, azken JAKINEN tamalgarriztat jotzen den bide beretik: alderdi politiko baten eskutik alegia, kasu honetan PSOErekiko hurbiltasun handiegarekin.

Eta bi. Ikusi dut lehen zenbakia, eta arreta bereziz «edición especial» delakoa. Eta? PSOEek ez du euskal kulturarik aintzat hartzen. Ez artikulu bat euskaraz, ez eta euskal kultur langile baten lankidetzarik. Ez genuen inon euskaltzetasunaren arrastorik ikusi ahal izan. ■ *Joan Altzibar.*

Torturaren kultura

Amaitu berria da Zorroagako Filosofi Fakultateak torturari buruz eraturiko astealdia.

Ez dakit bertan emaniko hitzaldiak argitaratuko diren ala ez. Egunkariren artean EGINek egunero aipamen zabala eman die; hala ere, guztiak batean kaleratzea baliozko izango litzatekeela uste dut.